Euskalkien kezkaren funtsaz

Itxaro Borda

Euskara, zakutik edo zorrotik, batzen ari garen garaiotan euskalkiaren izateko arrazoina zalantzan jartzera behartuak gara. Izateko arrazoin hortaz dudatzen hasten gara bi gauzen gatik: alde batetik, guhaur konturatzen gara, eta bata-bestearen atzetik datozkigun ikerketa soziolinguistikoek zenbakietan bermatuz ederki erakusten digute euskalkiak emeki-emeki desagertzen ari zaizkigula, euskalkia hots adinean hara ari diren jendeen altxorra da; beste aldetik euskaldun berria, euskalki berria ezpainetan iratzartzen zaigu, hizkuntzaren panorama osoa aldatzera ekarriz. Zaharrak zahar egoiten direla, berriak aldiz berri, noiztenka bien artean, ardurenean berritik zaharrera zubitxoa eraikitzen delarik, bakarrik zahar berrituentzat arazo edo gutienez kezka bilaka daiteke euskalkiarena.

Euskalkiaren abantailetarik bat da lekuan lekuko hiztunari edo irakurtzaileari, Axularrek lerrakeen bezala, hurbil egotea; badira zenbait jende, eta neronen kasua dela aitortzekoa dut egunean, bizpahi-

ru euskalki erabiltzeko -beraz ezagutzeko...- premian aurkitzen direnak, etxean eman dezagun amikuztarra, lanean zuberotarra eta elkarteharremanetan nafartar-lapurtarra. Idazterakoan bixtan dena oraino beste hizkuntza-eredu bat. Pentsa eta izanmolde ezberdinak sortzen ditu egoera horrek, ez baitezpada ezezkorrak. Horrek erakusten du halaber euskaldun bakoitzaren oinarrian eta hori aspaldidanik dakigun zera da, linguista nortasuna agertzen dela. Giro hortan euskara batua, euskalki bat gehiago bihurtzen zaigu.

Erraiten da, eta menturaz aski da literatura klasikoa batez ere iparraldekoa irakurtzea, aitzinako euskara orain baino batuagoa zela. Batuagoa ez dakit, baina segur orduko idazleak, predikariak eta mintzalariak euskalkien berezitasunetaz jakineanago ziren: Axular, Oihenart edo Tartasen, adibideak emaitearren, leitzea aski da hortaz jabetzeko. Jendeak nolazpait, katiximа edo "Eskualduna" astekaria dela medio, euskaraz "alfabetizatuak" ziren, azken berrogei eta hamar urteotan egin ez den bezala, euskararen plaza "publikotik" desagertzearekin. Gure belaunaldia izan da lehena, oso analfabetoa alor hortan.

Eztabada handiak sortzen dira mende ondar honetan euskalkien gaiaren inguruan, eredu bat dabilkigulako erdian, eta sahets-euskalkiek arras baztertuak izateko sendimendua dutelako: plaza ukatzen zaie bizkaitarrei, iparraldekoei eta nafartarrei, eta mass-medietako plazak dira nausi gaurkoan. Galdera zera liteke: badea nonbait lekurik euskalkientzat, literaturan demagun, prentsan xoko bat edo telebistan bost minutu egunero, euskal herriaren hizkuntz aberastasunaren isladatzeko?

Euskalkiak aipatzen direnean, hauen iraupenaz edo debaldezkotasunaz mintzatzean, hizkuntz politikaren gaia mahaineratzen da. Argi da 1968az geroztik, nekeziaz nekezia eta urratsez urrats politikoki

"estado" baten altxatzen ari garela, eta estado konzepto horren ardatza euskara dela, euskara baita euskaldun egiten gaituena. Giro hortan hizkuntza, gatazka sozio-ekonomiko-kultural guzien biltzaile, pairatzaile eta garraiatzaile bilakatzen da. Erran gabe doa ikusmoldeak edo iritziak norberaren lurraldean eramaiten den edo eramaiten ez den behiala agertzen nuen "hizkuntz politika"ren joanak baldintzatzen dituela. Ni Lingua Nullus eremuaren bihotzetik ariko naitzaizue. Argi bego hargatik, euskara batuaren eta euskalkien artean enetako ez dela, zenbaitek gostura harrotzen duten aharra zein kalapitarik.

Euskaldun zaharrak ezin diro nehondik ere bere etxeko edo herriko euskalkiari ihes egin, batuaz idazten dutenaz gehien konziente diren gipuzkoarrek are gutiago. Euskalkien ezagutza hurritzen doan heinean eta ama-hizkuntzan anafalbetismoa zabaltzen ari den neurrian, euskalkiak elkarri arrotz moldatzeko arriskua dakarkigu. Literaturak oraino, hizkuntz ezberdintasunen gainetik batzen ahal gaitu. Literatura ez da prentsa idatzia, ez da ikus-entzuneko baliabidea, pertsonalago den zerbait da. Ez dakit noiz arte ordea *libre* egongo den.

Euskalkiaren kutsuak idazlearen, zenbaitetan kasetalariaren estiloa markatzen du, bere baitan daraman Hizkuntz Historia azaleratzea baimenduz; irakurtzaileak badaki paperean etzaten dituen hitzetarik beretik idazlea, euskal lurralde zabalean NON kokatzen den, nondik datorren, nora doan ere bai segur aski. Euskalkia bakartetan agertzen denaren aurka, zokokerietarik urrun da, justoki hizkuntz gatazkaren muinean aurkitzen delako. Bizkaiako, Nafarroako, Gipuzkoako edo Lapurdiko idazle bat ez da nonahitik mintzo euskararen esperintzia pertsonala, intimoa partekatzen dute denek, hedatua espero den publikoarekin, publiko hortako kide bakoitzak bere hizkuntzaren esperintzia propioa duelarik. Literaturan behintzat une hauetan, dei-

torragarri liteke norberarena ez lizatekeen berezitasun horien ez kausitzea.

Hizkuntz Nazionalaren eraikuntzan ez gara araiz, inguratzen gaituzten estadoen maneran edo hauek baino gehiago egin beharrez ariko? Frantsesa adibidez gune zehatz batetako mintza-eredua indartuz eta zabalduz eraiki zen: Tours eskualdeko frantseskia hartu zen, garatu eta besteak desagertzeraino, gureak barne, inposatu batez ere azken mende honetan eskolaren bidez. Telebistan hautemaiten den frantsesa bost ehun urteko ekinaren ondorioa da. 1535ean Richelieu kardinaleak Frantses akademiaren sorreran, jakintsunei betebehar zehatza eman zien: itsuskeriarik zein likiskeriarik gabeko hizkuntz nazionalaren plantatzea.

Ez dea horixe bera gertatzen Euskal Herrian 1968az geroztik? Euskalki bat, Gipuzkoakoa eredu gisa moldatu da -ezaguna da karia hortara Piarres Lafittek Arantzazuko bilkuran jasan zuen etsipena, nonbait eredu berriak iparraldeko euskalki jada hiper batuen ukapena zekarrela susmatzen zuelako- egunkarietan, agerkari guzietan eta sustut telebistan erabiltzeko gai. 1970 urteetan zehar harrigarriak ziren iparraldeko idazle zenbaiten lanak: denek Donostian bailiran idazten zuten euskaraz. Orohar *estandarrizazioak* euskalki bat hazi du, Gipuzkoatik kanpoko euskaldunentzat, komunikabide tresna ahalik eraginkorrena izatea helburu. Frantses akademiako xedeen antzera, euskara batu da, eta batu den unean garbitu eta *pobretu*, kolore eta gostu gabetu zenbaiten aburuz.

Hizkuntz Nazionalen "exklusibitatea" Konstituzioaren 2. artikuluan finkatu duten estadoak baino haratago joanen ote gara Euskal Herrian datorren mendean euskara mailan? Hau da frantsesak eman dezagun hiztunari -frantsesez behintzat- lekuan lekuko ezbedintasunak zilegitzen dizkio, halaber literatura idazleari. Euskaldunok litera-

tura ere batuaz kometitzea eskatuko ote diogu sei lurraldeetan idazten duten izkribatzaileei, oso batua ez baldin bada egokipen zein itzulpen baten laguntzaz textoak publikatuz? Euskara batua oraidino nabari daitekeen hizkuntz bizitasun zerbaiten ukapen derrigorrezkoa dea? Argitaletxeek eta kultur ekoizleek kudeatzen duten merkatuaren legearen kakotx artean iharduteko xoilik?

Zer da euskara batua? Eta beti hizkuntz politika zehatz baten ideologiaren mamira heltzen eta itzultzen gara, une hortan inguratzen gaituzten estadoen adibidea atzemaiten dugularik. Erraiten baldin bada "euskara batua" euskara estandarra, idatzia eta urbanoa dela uste dut gorago aipatu ideologiaren muinetik hurbiltzen garela, euskara batuaren pentsatzaileen helburuak baitziren argiki hiritar hazten ari zen euskaldungoari hizkuntz tresna balia eta erabilgarri baten eskaintzea. Bazterretako kurrinkak behatzean, iduri du xedeak egi eta errealitate bilakatu direla, hogei urtezko "ibilera bortxatuaren" ondorioz. Entzuten da ordea, gero eta gehiago naski, euskara batuaren ordez, euskara estandarraren konzeptoa erabiltzen dela, estilo liburuetan adibidez, behialako "martxa"ren efektuak mendratu asmoz bezala.

Euskara batua, Etxamendik "patua" deitzen zuena garai batean bederen, nausiki euskara idatzia da, ahozkoaren alde kontrakoa. Euskara mailan ere, Europa guzia XVIII. eta XIX. mendean agertu ziren eztabadak sartu dira, idatzia, ahozkoaren parean hobetsiz. Karia hortara Haustura soziala markatua suertatu zen, nik hemen luzeegi izan ez beharrez, bi hitzez laburtuko dudana: ahozkoa berdin nekezal jendartea, idatzia berdin hiritarra eta honenbestez eskolatua. Euskararen batzeak, mugimendu sozial jazarroi horri erantzun zion eta dio, 1968az geroztik are zuzenkiago. Euskara hiriaren antzekoa bilakatu da: massen hitza, ez guk nahi bezainbat halarik ere, zerupe gris eta etxebizitza anonimoena. Baserri guneetako bizitzaileak hiri-

tartu gara molde berdinean, eta aitzinako hitzen ordez, hirietan probatuak ezpainetaratu zaizkigu, *bueltatu, jipoitu, eskaparateak, boligrafoak, hori esan bezain pronto, derrepentean, alfonbrak* eta gisa hortako mila ele.

Ahozko kultura, aldi berean, goraipatzen da, iragan mendeetako aztarna maneran: artzain-kantuak, bertsolariak, ipuin-kondalariak... hauek ere orain, idatziaren eraginez, euskara batuko hitzak dauzkatela aho-zokoan. Bertsolarien kasuan, ardura hautemaiten da gaurkoak ez direla atzokoak adina bipil eta xotil. Alabaina, ahozkoa ezabatzearekin, herrikoitasuna bermarazten zuen trukulantzia, fartza eta irri gordinaren gostuak desagertu dira. Baliteke, euskara arrazionaltzearekin batera, idatzizkoan zein ahozkoan, Piarres Adameren espantuzko algara satisfosak joan direla beste mundura. Kontsumo gizarteak aniztasuna ez du eramaiten ahal eta argi da, edozein alorretan bezala, euskararenean irri egiteko denborak ahitu zaizkigula.

Voltairek Rabelais ehortzi zuen, aditzen da frantses literaturaren berezilari zenbaiten ahotik. Hildo hortarik, agian Bernardo Atxagak goraipatzen zaion euskara funtzional efikazarekin, Bernat Etxepare Eiheralartarraren idazmolde barrokoa, zentzu guzietan laxoa, lurperatu du. Menturaz itxura gogorregia dut hor, baina nahi nuke erakutsi hitzen estandarritzeko borondateak, idatz-ereduen zein idatz-gaien estandarrizatzea ekartzen duela, digula azken finean. Atxagak, emazte batekilako hitzordura joan aitzin masturbatzen den gizon baten pertsonaia papereratzen baldin badigu ere (ikus *Gizona Bere Bakardadean*) ez da aise Etxepare edo Oihenarten elesti-libertateaz gozatuko idazteko orduan, are gutiago gu irakurtzeko unean. Zerk sortzen du diferentzia? Segurraski hizkuntzaren neutral izaiteko xedeak.

Euskarak mendez mende bazter hizkuntz nausietako solasak hartu ditu, menperakuntza eta auzo ugarien lekukotasuna ekarriz; atorra

eta xokiak arabeengandik hartu ditugu eta hizkuntzaren historizate hori eder zait, eni behintzat. Irauteko edo izaiteko medio bakarra izan dena, gaurregun akats baten moldean erakutsia zaigu. Baina hori geroxago aztertuko dugu. Biltze-hartze. ohitura luze horren aitzinakotasuna azpimarratu nahiko nuke: 1545ean Detxeparek euskaraz ezagutzen dugun lehen olerki bilduma agertu zuelarik, fenomeno hori isladatu zuen. Axularek aldiz, euskalki ezberdinen korpusa eskaini zigun, haren euskararen egitura, latinean oinarritzen zelarik. Oihenart eta Etxeberri Sarakoaren kasuan berdin.

Beti erraiten dugu, eta orduko idazkietan froga dezakegu, iparraldean guziek -lapurtarrek, nafartarrek eta zuberotarrek- ulertzeko gisako euskara batu idatziaren eredua finkatua izan zen XIX. mende erditsutan, komunikazio beharrak halakoxeak zirelako alde batetik, eta bestetik iparralde honetan ibili ziren holandes edo aleman hizkuntzalariek hortara hein batean deiturik, idatzizko alorrean bederen. Euskara bezalako "ahozko" hizkuntza batean, eragina izan dute kanpoko soek, bai eta "nazionalitateen mugimenduek". Halatan, *Eskualduna* eta 1947tik aurrera *Herria* Baionatik Santagrazira irakurtzen ahal zen, berriak Atarratzetik edo Hendaiatik etortzen zirelarik. XX. mende hastapeneko iparraldeko idazle klasikoek hizkuntza bat bazuten eskura eta erabilgarri: Etxepare medikuak, Zerbitzarik, Jean Barbierek edo Otsobik. Iparraldeko euskalki moduan onartua den eredu bakarra emaiten digute idazle horiek. Adibideak direla, atxik dezagun gogoan.

Giro hortan, 1968an Euskalzaindiak batuaren eredua, jadanik aipatu duguna, proposatu zuen Euskal Herri osoari, iparraldeko idazle zenbaiten kexua haziz. Hogeita hamar urte beranduago, eredu hori ere, jendeen mihipeetan lerratzen dela ikusten ahal dugu, irratiak behatzen, astekariak edo literatur ekoizpenak irakurtzen baldin baditugu. Batuaren ereduak bi gauzetarako balio izan du: lehenik, ipa-

rraldean ahantzixeak ziren hitzen berriz erabiltzen hasteko, hala nola “ekoizpena" “produkzionea"ren ordez, eta bigarrenik hegoaldeko euskarak espainoletik harrapatzen dituen hitzen hemengaindi hedatzeko. Ikastoletako ikas-materialaren bidez demagun. Egungo egunean, iparraldeko euskaldun batek hizkuntza mailan "jantzia" agertu nahi baldin badu hegoaldeko eleak ezpainetaratuko ditu, etxekoei ihes eginez. Duela hogei urte zabalduago zen joera hori emeki~emeki ahultzen ari dela ere ohartzekoak gara.

Ikastoletako ikas-materialaren hizkuntz edukinaren eragina indartsua dela argi da; iparraldean, salbuespenak salbu, baliabide hurriak ditugu ikas-materialaren sortzeko. Orduan hegoaldeko liburuak hartzen dituzte erakasleek, Garazi edo Maulen denbora ebasten duten egokitzapenak obratuz. Arrangura ene gostuko handia da. Iparraldeko, Nafarroako zein Bizkaiako ikasleak, bere eguneroko hitzen herexak ez atzemaiteaz gain, ez du hurbileko lukeen lekurik ere kausitzen. Liburuak Realaz, Arantzazuz, Tolosako ihauteriz eta Xenpelaren zuhurritzez beteak datozkigu. Ez lukea Tuterako Argia ikastolako ume batek, Bardeen argazki baten ikusteko eskubiderik, kasik orduero irekitzen duen irakurgailiburuan? Adibideak biderka nitzazke, eta bazter-euskaldunak, periferietakoak alegia, egoera berdinean gaudela konturatuko gintezke.

Arazoa zera liteke, hizkuntz nazionalaren eraikitzen ari gara, eta egia da premiazkoa zaigula, literatura aparteko komunikazioaren errezteko, baina hizkuntz nazional horrek har lezakeen lurraldetasuna piskat ahanzten dugu bizkitartean. Badirudi, eta ez da hau oharpen bat baino, hizkuntz nazionalaren eremu politikoa, soziala eta kulturala Gipuzkoa dela xoilik, entzierro luzean aitzindari delako gaurregun. Euskalkietaz galdezkatzeak, kezkak ugariak dira azken urteotan; desiratzen dukegun egiazko lurraldetasunaz axolatzera behartzen gaitu. Eta hor ez da erantzunik izango, erdiguneko euskaradu-

netarik, are gutiago muga-linguistiko zaindari dauden euskaradunetarik kanpo.

Erraiten da gaurregun, euskara batuaren eredua martxan jarri eta hogeita hamar urteren buruan, bi euskalki berri hedatzen direla Euskal Herrian, bata espainolaren menpe eta bestea frantsesaren itzalpean. Oharpen horiek errealitatean bermatuak izan daitezke, baina baliteke egoera uherrago dela susmatzea. Idazterakoan, literaturan bixtan dena, artikulugintza adibidez estandarrizatuago da, hizkuntza aukeratzen du euskal izkribatzaile bakoitzak eta ez da sekulan bere euskalkiaren oinarrietarik urruntzen. Zenbaitek hegoaldean iparraldeko eredua hobesten dute, besteek iparraldean hegoaldeko ereduaren hautua egiten dute; nehor ez da eztabada horietarik at geratzen idazteko unean, harrigarriki.

Maiatz aldizkariak 1981ean sortu zelarik, balizko irakurtzaileei hurbildu beharrez, iparraldeko nafarrolapurtar batuaren ildoak irekiko zituela erabaki zuen. Ez ordea sistematikoki, idazle bederari hizkuntz-askatasunaren eskubidea eskainiz. Halatan, kausitzen ahal ziren eta dira *Maiatz*en garaztar garbiz idazten dutenak (Etxamendi, Minaberri), lapurtar motzez ari direnak (Zamora, Legorburu), iparraldeko batu zabalean paperak beltzatzen dituztenak (Borda, Davant, Aire, Arkotxa, Etxezaharreta) eta estandarra darabilatenak (Pelot, Apalategi, noiztenka Erdozaintzi-Etxart). Bideak halaber urteekin zedarritu dira: idazle bakarrek batu “nahasi" batekin hasi ondoan “etxekoarekin" segitu dute, ikasi duten euskalki berri batean zehar (Borda). Beste batzuk aldiz, karrikan eta baserrietan entzuten den euskara ingles edo frantses hitzez "kutsatua" eraman dute ipuin eta antzerkietara (Irigoien, Luku, Irigarai). Azkenak *Herria* astekariaren ereduan gerizatu dira, eta eredu hori zinez eredua da hegoaldean ere, iparraldeko euskararen bipiltasuna hein batean ukatuz (Landart, Dirazar, Diharze).

Hizkuntz hautuaren norabidea xoila zen eta da oraindik: hegoaldeko idazleak, guziek irakurtzeko gisan, Gipuzkoako euskalkian izkriba baldin badezake, adiztegi batua baino ez erabiliz, zergatik ez guk halatan iparraldean? Goiherriko poetek "inbutu" sar badezakete texto batean, nola ez guk “zozizonatu" hitza, "ataxekeiza", edo nik dakita zein azpieuskalkiko ele? Uste dut ondar hamabost urteotan iparraldeko idazle bakoitzak, hegoaldekoaren eskubide berdinak hartu dituela, bere idazkintzari airea emanez irakurtzaileen hurbiltasunaren bilatzeko. Bi eginbide baitzituen, erantzukizun erran nezake, 1968az geroztik iparraldeko idazleak: batetik literaturaren konzeptoaren berritzea, Europan zebilen edukinari egokitzea, eta bestetik literaturaren ideia horren hizkuntzaren zizelkatzea. Hegoaldean gertatu zen literaturaren urbanizatze fenomeno bera, bizi izan du iparraldeak. Idazlea, ikerlariaz edo elizgizonaz beste zerbait bihurtu da, euskararen prekaritatea, aitzineko belaunaldien betikotasun linguistikotik at "bakardade" kultural mota bat pairatzen zuen eta duen norbait.

Hegoaldeko "filologoek" ez diote iparraldeko idazkintza literarioari aldaketa hori onartzen, beren kasu propioan aurrerapen deitzen duten aldaketa hain zuzen. Agian, horrela ulertzekoa da, iragan udaberrian *Maiatz* aldizkariak kudeatu mahain-inguruan, egunkarietara atera zen Ibon Sarasolaren “iparraldeko izkribatzaile gazteei” buruzko erasoa: haren iduriz iparraldeko idazle berriak ez doaz inora, frantsesak kutsatzen du hauen euskara, eta tradizio zaharrean baino ez liteke salbamendurik. Hegoaldeko sortzaile literario anitzentzat iparraldea, hizkuntz altxorra da, erreserba linguistiko gisako bat, den-mendreneko aldaketak ukatzen zaizkiona, euskara batuaren onetan noski. Halatan, zuzen da, iparraldeko idazkintzaren tradizioa Landarten garaian haustea eta 1980etik honara agertu diren izkribatzaileen izenen memorietarik ezabatzea. Uste dut gainera hegoaldean "sineste" hori oso zabaldua dela, *Egunkaria*n behin Andu Lertxundiren eleetaz

oroitzen baldin banaiz -zioen Mirandez honarainoko iparraldeko literatura ez zuela ezagutzen- eta Euskal Kultur Erakundearen *Leihotik* hiruhilabetekarian Josan Artzeren solasak gogora ekartzen baldin baditut: "Eta hortik kanpo ere (Etxamendi) oso idazle onak daude Ipar Euskal Herrian: Hiriart-Urruti, Daniel Landart, Junes Casenave, besteak beste. Guk (hegoaldekook) baino hizkuntza jasoagoa edo tradizio gehiago dutelako, iruditzen zait iparraldean errezago atzeratzen dela oso ondo idazten duen jendea". Ezagule finen maskarapean, jujamendu landerosak egiten dira hegoaldetik, iparraldeko literatura berria deit dezakegunari plaza hertsiz.

Iparraldeko idazleok -gure liburuak hegoaldean aipatzen dituztenean "iparraldeko kutsu nabariegia" susmatzen zaigu balore negatibo moldean aurkezturik, edo batuaren aurka jotzea leporatzen digute euskalki ireki batean izkribatzen dugulako, bekatu barkaezinak nonbait- ikusten dugu gero eta gehiago lekua murrizten ari zaigula Euskal Herriko literatur eremuan. Ikusten dugu, halaber, gure hizkuntza, euskalki ugari, kideen ezpainetarik desagertzen eta lekuan lekuko botere publikoen euskararekiko ibilmolde bekaitza, euskara gauza arras pribatua balitz bezala konsideratzen dutenean. Pribatua euskara eta eskubidez pribatua berdinki. Agertzen dudan egoerak Nafarroarentzat balio du naski.

Bi urtetarik behin eskaintzen dizkiguten ikerketa soziolinguistikoek -bat gehiago eginen da 1999an, jende kondaketa nazionalaren karietara sei mila familietara bidaliko den galdetegi baten bidezmintzairaren xifritzea argiki erakusten digute, galtzea etengabea dela zenbakiz frogatuz. Euskara etxeetarik eta karriketarik ihes doan heinean, prentsan edo telebistan ez dugu kasik batere iparraldeko euskalkirik leitzen zein entzuten, hemengo irratietan eta ETBen emaiten den Iparraldea magazinean salbu. Bizkitartean, Bilboko euskaltegietan azaltzen dira biharko nafartar edo zuberotar hiztun apurrak (!).

Ikastoletan haurrek, hastapenean euskalkia bereganatzen baldin badute ere, laster euskara batuari ohartzen dira, ikas-materiala edo Super Bat dela medio. Iparraldeko ikasleak oraingo eta biharko euskal ekoizpenaren kontsumitzaile xoil gisa hezten direla erran daiteke, iduria piskat bortxatuz.

Zentzu hortan entelegatzen ahal da, Elkarlanean argitaletxeak Marijan Minaberri haur ipuin idazlearen bilduma elebidun publikatzea: euskara batuzko eta nafarrolapurtarrezko bertsioak eskaintzen ditu hegoaldeko irakurtzaile gaztei, egokiturik eta zenbaitetan itzulirik. Bi textoak aztertzean ez dakigu zuzen zer ekartzen dion Marijan Minaberriren hizkuntzari eraman den egokitzapenak, perpausen egituraren aldaketak edo "erran"en partez "esan"en jartzeak, “pastizaren" tokian “pastela" demagun. Ondarrean, zer da helburua? Marijan Minaberriren iparraldeko euskalkia, Euskal Herriko haurren gogoetan hizkuntz erdi edo osoki arrotzaren maneran presentatzea? Jadanik arrotz gara euskaldunak iparraldeko lurraldeetan, arrotz bilakatuko ote gatzaizkio hegoaldeko “merkatuari"? Ene uste apalean, *Egunkaria*ko *Ertzetik* zutabean idatzi nuena errepikatuz, afruntu egin zaio Marijan Minaberriren euskarari, aldi berean kolpatu direla, askotan batuaren balizko eredu bati hurbilago dauden bizkaitar, nafartar, lapurtar eta zuberotar idazleen izaerak.

Giro orokor hortan, Gipuzkoako euskalki estandarrizatuaren suertea bazter edo sahets euskalkien herio natural iragarria den unean, baliteke gune hauetako idazleen liburuak Axularen "irakurtzaileari abisu" batekin publikatzen hastea: "kontuz/kasu, liburu honek iparraldeko euskararen kutsua dakarkizu..." edo antzeko zerbait. Baina ez gara oraino hortan eta literaturaren hizkuntz aniztasuna errebendikatzen segi dezakegu: nik maite dut hitz edo perpaus baten hedaduran susmatzea idazlea nongoa den, zein den bere hizkuntz-historioa, nondik iragan den hizkuntzaren lantzeko, noren haur linguisti-

koa den, literaturaren alorrean behintzat. Gero komunikabideetan irakur edo idatz ditzakedan textoak estandarrean kometiturik baldin badatozkit hobe euskararentzat! Alor hortan egokitzapenak gainera onargarriak zaizkit, iparraldeko idazleoi ardura gertatzen zaigun bezala, textoak hegoaldeko aldizkarietan agertzen ditugunean.

Zuzenketen onestea literaturan zailagoa zait ordea, ortografia batuaren erabiltzea balios izan daitekeen arren, ez dakust hain premiazko "koropiloren" partez "korapiloren" jartzea olerki edo nobela batean. Hein hortan defendia nezake euskalkien presentzia literaturan, textoa, sekula burdinez katestatu gabe, lokalizatzen dutelako, toki eta denbora zehatzean. Hizkuntza literaturan ez da tresna edo lanabes xoila, hizkuntza giro hautaketa da, idazlearen estiloa, bizitasuna eta irekitasuna. Gure hitzek pairatzen duten zokoratze eta prekaritate egoeraren lekukoa ekartzen dute euskalkiek literaturalat; ez dut uste, ostatuetan demagun leitzen ahal den eran, gure hizkuntza dakitenek hitzegiten ez dutelako desagertzen dela, eria bere gaitzaren errudun dela aitzinatzea bezala da hori. Euskara altxor publiko berma lezaketen botere politikoen axolagabekeria azpimarratzekoa da ene iduriko. Erantsi nahi nuke euskalkiek bi uholde suerte jasaiten dituztela: lekuan lekuko funtsezko hizkuntz politika baten falta gorria eta aldi berean, batua deitzen den ereduaren partetik ez-ulertze erraldoia.

Batua egiteko da oraindino! Puntu honetan guziak, iparraldean zein hegoaldean akort bide gara Ibon Sarasolaren *Ajeak* liburuko ondorioekin. Nik hauxe gehituko nioke ohar horri: batua ez da egiten eta eginen euskalkiak, nafartarra, bizkaitarra, lapurtarra edo zuberotarra integratzen ez baldin badira. Literatura barne, aurkezten zaigun estandarrak ez gaitu asebetetzen; estandarrizatze edo unformizatzeak bestalde gaitsezten ditugu, frantsesaren, inglesaren (gutiago) edo espainolaren eraginak aipatzen ditugunean. Hizkuntza mailan, hirugarren bide baten asmatzea ahalezkoa dea?

Ordea estadoek ez dituzte ezberdintasuna onartzen, hain dira anarkiaren beldur! Hemen hori dea gertatzen azken urteotan? Estandarraren ereduaren sustatzaileek gohain dutea anarkia linguistikoa? Alta anarkia, zati handi batean erresponsabilitatea da, aniztasun onartuaren erantzukizuna. Toki gero eta murritzagoak euskalkiei zilegituz, literaturan dialogo edo elkarrizketetan baino ez erabiliz eta euskal kultur ekoizpenei buruz merkatuak onar lezakeen eredu bakarrari jarraikiz, hizkuntza pobretzea ondoriozta daiteke. Ez gara zaldunak, baina hizkuntza gutienez ahal bezain aberatsa behar dugu, Euskal Herria osatzen duten lurralde guzien errealitatearen "gatibatzeko".

Literaturaren oinarrian historia bat dago; historiaren kondatzeko hizkuntzaren arnesa dauka munduan zeharreko idazle bakoitzak. Herriek beren mintzaira estandarrizatuak -beti estanda egiteko prestbadituzte komunikabideen eskuragarri, baina idazleari etxekoaren, ibarrekoaren edo sozial-gunekoaren erabilpena ez zaio ukatzen, eta kritikak irakurtzean ez da usu agertzen, "banlieu" batetako hitzak eta perpaus egiturak darabilzkien idazle bati egin aipamen negatiborik, gurean zenbaitetan gerta daitekeen eran. Alderantziz estiloa goraipatzen da.

Hizkuntz batuaren eredua hedatzerakoan, auzo dauzkagun frantses edo espainol estadoek baino urrunago joanen ote gara, hau da literaturaren alorrari estandarra inposatzeraino? Azken hamarkada honetan Euskal Herrian liburua, axurkiaren antzera, merkatuko produkto xoil gisa konsideratzen da eta halaz labelizatua, hizkuntz aldetik uniformatua eta “elikagai” errez azaldu behar du saltzaileen ataletara. Liburu baten kalitatea, salmenta-zenbakien arabera neurtzen da; tautologiak berriak ozkan jartzen ahal ditugu laster: asko saltzen diren liburuak onak dira, batek hainbat mila saldu ditu, beraz bat haren liburua ona da. Eta prefosta, giro merkantilista hortan, poesia kanporatua da. Baina hau beste eztabada baten gaia izan daiteke.

Eta literatura ez balitz bakarrik merkatua? Idazle eta irakurtzaile batek bata-bestearengana egiten duten bidea bailitza? Bakoitzak bere hitzekin eramaiten duen bide zati bat? Eta bakoitzak, bere hitzak hain zuzen, gogotik irakurtzen baldin baditu liburuaren orrialdeetan idatzirik, euskalki guzientzat lekua menturaz segurtatua liteke, ereduak sortzen duen giro orokor baten barruan. Bere hitzak diodalarik, bixtan dena, bere errealitatearen mintzairaren musikalitatea erran gei dut.